

noaua

Ugartondoko
urbanizazio
proiektua martxan

Kantu Taldeak liburu
berria plazaratu du

Igande honetan Sutegin,
Ruper Ordorikaren
kontzertua




'Tipi Tapa' eta gero, 'Bizi Kalea'

Kalea girotzea helburu duen egitasmo berria


Usurbilen,
zure auto-tailerra

Esena Ramon



Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAINIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



EuroTaller

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

GOLDWELL
ELUMEN

ileapaindegia

mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**ETXEBIZITZA
ENKANTEAN**



Eskaera egiteko
azken eguna:
ABENDUAK 20

Lizitazioko gutxienezko prezioa:
106.323'45 euro

Lizitazioko gehienezko prezioa:
132.823'45 euro

Informazio gehiagorako: **943371951**
edo **kontratazioa@usurbil.eus**

Ordutegi gehiago
eskuratu nahi badituzu,
hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar
- * Eroski City * Aginagako
- Arrate taberna * Zubietako
- Alamandegi taberna

Edo deskarga ezazu
www.noaua.eus-etik!

noaua

tren eta autobus

noaua !ordutegia 16/17

Albiste iruditan

Aginagarrak, Gipuzkoako jubilatuen martxa neurtuan

Urriaren 22an Donostian ospatu zen Gipuzkoako martxa neurtuan parte hartu zuen aginagar talde batek. 143 partaideren artean lauko bi taldeetan banatutako 8 lagunek guztira, Maria Angeles Arrutik helarazi digun ondoko argazkiaren bidez adierazi digun moduan.

“Eguraldi ezinhobea egin zuen gure aurtengo martxan. Gipuzkoako jende ugari bildu gara aurten. Donostian izan dugu topagunea eta 10 kilometro inguruko ibilbidea”, Arrutik NOAUA!ri berri eman dionez. Honatx parte hartu zutenen izen abizenak. Ezkerretik hasita: Santi Algorta, M^a Kontxi Maioz, Maria Angeles Arruti, Maritxu Pagola, Pilar Errasti, Joxe Luis Bereziartua, Miren Iparagirre eta Joxe Mari Bengoetxea.

Goizean zehar ibilaldian parte hartu ostean, “Atano pilotalekuan bazkaldu genuen, giro ezinhobean. Azkenik, dantza



10 kilometro inguruko ibilbidea osatu zuten, Maria Angeles Arrutik NOAUA!ri berri eman dionez.

saioa eginda etxeratu ginen, oso gustura”. Lerroon bidez antolatzaileen lana eskertu nahi du Arrutik. “Eskerrak anto-

latzen ibili ziren guztiei, lan handia baita eta askotan ez gara konturatzen bestek egiten duen lanaz”.

Laburrean

Azaroaren 19an, 1973an jaiotako bazkaria

13:00ean elkartuko dira Bordatxon. Eta gero bazkaria Atxegan. Izen emateko: 653 734 377 (Juan Mari), whatsapp bidez 647 973 854 (Aitziber). Email bidez: usurbil73@gmail.com. Azaroaren 14a baino lehen.

Azaroaren 19an, 1972koen kinto bazkaria

Azaroaren 10a baino lehen eman behar da izena. ES38 0182 6043 2102 0151 4132 (BBVA) kontu korrante zenbakian 40 euro ingresatu eta izen abizenak ipini.

1952an jaiotako bazkaria, abenduaren 4an

Saizar jatetxean egingo dute kinto bazkaria. Izena emateko deitu alde aurretik, azaroaren 22a baino lehen, 943 361 380 telefono zenbakira. “Animatu!”, luzatu dute gonbita.

noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaUA.eu // www.noaUA.eu

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eu:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

#Noauak20 erakusketa

Urteurrenak, nagusiki, atzera begiratzeko aitzakia gisa baliatzen dira. NOAUA! Kultur Elkar-teak 20 urte bete dituen hone-tan, gu ere atzerako ispiluari begira jarri gara.

Aurtengo Kultur Hamabos-taldia profitatuz, erakuske-ta bat egitea otu zitzaigun. Egunotan Sutegira hurbiltzen bazarete, #Noauak20 erakus-ketarekin egingo duzue topo.

Urte bakoitzarekin, taula edo xafla luzexka bat osatu dugu. Urte bakoitzeko, xafla bat. 20 urte joan direnez, 20 xaflatan laburbildu dugu NOAUA! aldizkariaren ekar-pena. Argazki esanguratsu batzuk eta 15 bat albiste isla-tzen ditu xafla bakoitzak. Ez da lan erraza izan. Zaila baita 20 urteko ibilbidea laburbil-tzea. Sintesi lan horretan, beti geratuko da zerbait kanpoan. Guretzat huskeria zena, bes-teren batentzat funtsezkoa

izango dena. Tira, horretarako daude NOAUA! guztiak sarean, edota urtez urteko bildumatan jasoak.

#Noauak20 erakusketa ez da inoiz perfektua izango. Baina egindakoaren lagin bat, izan, bada. Herri honek osatu duen ibilbidearen adierazgarri, eta aldizkari honek islatu duena-ren lekuko.

Antzekorik egin genuen 500. zenbakia plazaratu genuenean. Egun hauetan Sutegin topatuko duzuen, hortaz, or-dukoan ipini genuen erakuske-taren segida modukoa da.

Garai bakoitzak bere joerak dituen, eta egungoa ikusentzunezkoari hertsiki lotu-ta dagoenez, erakusketa honi ukitu gaurkotu bat eman nahi izan diogu. Tentazioari ezin eutsirik, duela hilabete batzuk bideo pieza txiki bat osatzea eskatu genion Luis Jambrinari. Hauxe zen enkargua: ikusen-tzunezko pieza artistiko bat,

erakusketan zehar bucle eten-gabea ipintzeko modukoa.

Osagai nagusiak bi argazki izango ziren: 1996ko Sagardo Egunean NOAUA!ko bazki-deek eginiko argazkia batetik, eta aurtengo Sagardo Egunean bazkideekin ateratako argazkia bestetik.

Tartean, banatzaileen ibile-rak eta egungo lan-taldearenak ageri dira. Eta Aritz Arrizaba-lagaren airezko irudi txundiga-rriak. Dron bidez, herriko pa-raje asko txori-bistan ikusteko aukera paregabea duzue egu-notan Sutegiko erakusketara hurbiltzen bazarete.

Pieza artistikoa izanik, mami pixka bat ere behar-rezkoa zela ondorioztatu genuen, eta bi gonbidatu lotu genituen: Andoni Sagarna eta Idoia Torregarai. Hastapenetako zein egungo garaia ulertze-ko gakoak eskaintzen dituzte. Modu labur eta zehatzean. Iraganeko oihartzuna dakarte,

baina aurrera begira hausnar-keta politikak egiten dituzte. Eta batez ere, bazkidezaren figura nabarmentzen dute biek. Due-la 20 urte bezain garrantzitsua delako gaur egun bazkidearen ekarpena. Portzierto, erakus-keta gelan bada harpide egi-teko txokoa (opari eta guzti!).

12 minutuko pieza, ikusgarria ez ezik mamitsua ere bada. 20 urte iraun duen elkarte honeta-tik jende asko igaro da. Eta zen-tzu horretan, baten batek aurpe-gi eta boz gehiago botako ditu faltan. Nola ez ba. Baina horrek ohiko dokumental baten lanketa eskatuko luke. Horrek suposa-tzen duen guztiarekin: lanketa sakonagoa, denbora, ahalegin teknikoa zein ekonomikoa... 25. urteurrenerako akaso?

Luis Jambrinak ondu duen lan-ak gehiago du artistikotik. Kul-turaldiko gainontzeko ekitaldiek bezalaxe. Gozatzeko garaia da. Asteburu ederra dugu begibis-tan. Ez galtzeko modukoa.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

Ika-Mika

Errausketa European

Gipuzkoako Batzar Na-gusietako politika orokorraren azkeneko bilkuran Juan Carlos Cano Alderdi Popularreko ordezkaria Luxenburgoko Rosaren zita hori aldarrikatzen ari zela zirudien, Zubietako erraustegiaren kontratua blindatu eta enpresa pribatuei ematerakoan gerta-tzen ari den iluntasunaz jar-dun zuenean. "Egitasmoaren ezagutza nahikorik ez..."

Juan Carlos Cano, industria ingeniaria da eta Europako Zuzentaraua ezagutzen du (Energia berriztagarrien zuzen-taraua 2009/28/EK). Beraz ba-daki administratiboki, Europar

Batasunak sistemaren energia errendimenduaren arabera egi-ten duela errausketaren trata-menduaren sailkapena. %65a gaintitu behar du balorizazio bezala hartzeko; gaintitzen ez badu isurketa eta ezabaketa da, inola ere ez balorazioa.

Xavier Elías Castells, inge-niari eta nazioarteko aholkula-riaren iritziz, ez da inon %20-tik gorako energia elektriko etekina lortzen duen erraus-keta plantarik. Birziklatzen den plastiko kilo bakoitzeko orduko 5 kw aurrezten dira. Aldiz, errausketaren bitartez orduko 2 kw sortzen dira. Hor dago aldea.

Agian Elias jaunak Europako Batasunaren ahotan jarritakoak eragina izan du Cano jaunaren-gan, eta horregatik eskatu du honek, energia balantze orokor hobe eta egungo garai hauetarako; konkretuki, Zubietako termo-elektrizitate zentralak izango duen batz besteko errendimen-du orokorra argitaratzea propo-satu dio GHKri, kontuan izanik, emaitza negatiboen kasuak eta aurrekariak badaudela. Hor dago, agerian, De Vlaamse, Belgikako Energia ministroak esan-dakoen oihartzuna ere. Honek argi-indar berriztagarria sor-tzeagatik ematen diren prima eta laguntzak kentzeko eskatu

du entropia horretatik atera eta azpiegitura alorrean Europak emandako laguntzen erabilera txarra saihesteko.

Prima horiek erretiratzeko badira, nola ziurtatu bi aldean artean adostutako irabaziaz?, enpresa pribatuekin sinatzeko lehen ahaleginaren atzerape-na Asensio jaunak salneurria hobetzeko bernegoziaketari leporatu arren, benetan uste da kezka daudela GHK-k ezin dielako %10,5eko irabazi gar-bia ziurtatu, proiektua bere gain hartuko duten enpresa pribatu horiei. Gogoan dugu Bidegi ka-sua eta gogoan Swapp-ak ere.

Iulen Lizaso

Ugartondoko urbanizazio proiektua, alegazio epean

Joan den irailaren 27an Eginiko Tokiko Gobernu Batzarrean hasieraz onartu zuen Usurbilgo Udalak, “Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Urbanizazio Proiektua”. Alegazio epean da orain. Udalak azaroaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabakia argitaratu zuenetik, 20 eguneko epea dute interesdunek, “proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten”.



Azaroaren 2an erabakia argitaratu zenetik, interesdunek 20 egun dituzte proiektua aztertu eta alegazioak aurkezteko.

Alegazio epean dira baita, irailaren 30ean alkateak dekretu bidez hasieraz onartutako “Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Barne Erreformako Plan Berziaren 1. Aldaketa” eta “Hiri

Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko garapena bideratzeko Hirigintza Hitzarmena”. Azaroaren 2an erabakia argitaratu zenetik, 20 egun dituzte baita interesdunek, proiektua aztertu eta alegazioak aurkezteko.

Gaztetxea kokatuta dagoen eremuan

Ugartondoko etxebizitza egitasmo berria, bistan denez, aurrerabidean da. Usurbilgo Gaztetxea kokatuta dagoen eremuan eraikiko dira bizilekuok.

2017ko udal zerga-ordenantza, erreklamazio epean

Usurbilgo Udalak urriaren 25eko osoko ohiko bilkuran hasieraz onartutako 2017rako udal zerga ordenantza erreklamazio epean egongo da hilabetez, urriaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten iragarkiaren biharamunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioak, “Udal-letxeke Sarrera Erregistro Orokorrean zuzenean edo legalki araututako lekuetan” aurkeztu ahalko dira. “Behin erreklamazio eta iradokizunak egiteko arauzko epea igarotakoan, erabakiak behin betikoak joko dira akordio berriak hartzen ibili gabe”, ohartarazi du Udalak.

Ika-Mika

Independentziarako bideak (I)

Lehenik eta behin Nafartarrak Kultur Taldea eta Nabarralderi eskerrak eman nahi dizkizuet, urriaren 1ean antolatu zenuten eztabaidaren harira. Izan ere, biziki garrantzitsua deritzot Euskal Herriaren independentziaren gaia eta eztabaidarekin jarraitu beharra dugula uste dut independentziarako bideak topatu arte.

Ikuspuntu historikotik ere independentziak adiera sakona du Euskal Herrian bizi ziren eta garen pertsonen artean norbanakoen eta kolektiboen burujabetza lortzeko.

Urriaren 1eko eztabaida saioan partekatutako ideiekin

bat egiten dut, non independentziarako oinarri identitario edota historikoez gain, bizi kalitatea hobetzeko proposamena ere gehitu behar zaion ideiarekin, alegia. Beste modu batera esanda, proposamen ekonomiko bat jaso behar du. Ideia handi honekin zera lortuko genuke, abertzale nahi izatetik, abertzale izan behar izatera pasatzea.

Baina zein da independentziarako gaur gaurkoz proposatzen ari den proposamena? Zein testuinguru ekonomikoan bultzatzen ari da? Testuinguruarekin ez dut gaur eguneko koinuntura bakarrik islatu nahi, baizik eta eredu ekonomiko ere kontuan hartu behar dela uste dut.

Gaur eguneko eredu ekonomiko kapitalista eta neoliberalak, Euskal Herriaren independentziarako mugak dakartza? Horrela bada, muga horiek zein diren aztertu beharko genituzke, eta ebatzi norbanakoen eta talde burujabetzarako aukerarik eskaintzen dizkiguten.

Euskal Herriaren independentziarako eredu ekonomiko kapitalistan oinarrituriko eta egiturazko eta sistemikoa den krisia ekarri duen baitan apostu bakarria egitea zuhurra da?

Eredu kapitalista honen baitan independentzia egikaritzen bada, gazteei modu autonomoan beren bizitza

proiektuak garatzeko aukera emango die edota prekaritatean edota erbesteetan izango diren beren patua?

Modu autonomoan garatu ezin bada, 3-4 belaunaldietan, gertaera demografikoez Euskal Herria ispilaren aurrean jarriko dute.

Nafartarrak Kultur Taldeari urriaren 1eko jardunaldietan euskal bideetarako atea identifikatu zutelako nire eskerrak eman nahi dizkiet. Behin ate hori irekirik, Auzolanetik bigarren bide baterako aukera ireki dezakeen proposamena eskaintzen dugu.

Gabriel Valin

“Herritarren hitza entzunarazi eta errespetarazteko konpromisoa hartzen dugu”

Urriaren 21etik 23ra antolatutako erraustegiari buruzko galdeketa parte hartu zutenak zoriondu eta eskertzen dituen gutuna etxez etxe banatzen aritu da egunotan, Erraustegia Erabakia Herri Plataforma. Botoa eman zutenak soilik ez, galdeketa bera ospatzea ahalbidetu zuten guztiak ere eskertu nahi ditu bilguneak eta barkamena eskatzen diete, bozkatu ezinik geratu zirenei.

“Zorionak eta eskerririk asko”

“Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizugu. Zorionak urriaren 21, 22 eta 23ko asteburuan Usurbilen eta Zubietan errauste plantaren inguruan egin genuen herri galdeketa zure parte hartzearen ondorioz izan duen arrakastarengatik. Izan ere, %43,6ko parte hartzea lortzea sekulakoa da. Eta hori posible izan da zuk galdeketa honi eman diozun balioagatik eta zure botoa ematera hurbiltzeagatik. Zubietan, gainera, are handiagoa da lortutakoa: 16 urtetik gorako %64,7 zubietar joan baitira bozkatzera. Eta hautetsontziek oso modu argian azaldu dute zein den usurbildarren eta zubietarren gehiengoak nahi duena: errauste plantarik ez egitea. Bozka eman dutenen %97,9ak ezezko borobila eman dio erraustegiari; baiezkoa, berriz, %1,7k esan dio.

Bestetik, galdeketa hau au-



“Auzolan erraldoia izan da honakoa. Izugarritzko ariketa demokratikoa egin dugu”, Erraustegia Erabakia Herri Plataformak aditzera eman duenez.

ERRAUSTEGIA ERABAKIA

“Herritarrok gure egunerokoan hain modu nabarmenean eragiten duten gauzei eta proiektuei buruz erabaki nahi dugu”

rera eramaten lagundu diguzuen guztiei ere gure eskerririk zintzoena eman nahi dizuegu. Askok izan zarete, modu batez edo bestez, ekimen honetan lagundu duzuenak; laguntza ekonomikoa emanez, kamisetak erosiz, lipdub-a antolatzen eta parte hartuz, hautesmahaietan parte hartuz... Aipamen berezia ere egin nahi diegu galdeketa zorroztasunez eta gardentasun osoz burutzen

zela bermatzeko ardura izan duten berme batzordeko kideei, euren konpromisoa ezinbestekoa izan baita galdeketa egiteko.

Eta, bide batez, barkamenak ere eskatu nahi dizkizuegu galdeketa botoa ematera hurbildu zareten eta parte hartu izan ez duzuen guztiei. Bakarren batzuk izan zarete. Errolda erabiltzeko aukera ez izateak galdeketa bera zaildu du. Guztia ahalik eta zorrotzena eta garbiena izan zedin, eta inolako mesfidantzarik ez eragiteko helburuz, edozein hauteskundeetan baino ziuertagiri gehiago eskatzeak bakarren batzuk botoa emateko aukerarik gabe utzi du. Horregatik, zuei bereziki, eskerririk asko.

Auzolan erraldoia izan da

honakoa. Izugarritzko ariketa demokratikoa egin dugu. Normaltasun osoz gauzatu dugu herri galdeketa. Eta heldutasun demokratiko handia erakutsi dugu, parte hartze datuak argiki erakusten duten bezala. Herritarrok gure egunerokoan hain modu nabarmenean eragiten duten gauzei eta proiektuei buruz erabaki nahi dugu. Horretarako eskubidea dugu. Gurea baita hitza eta erabakia.

Eta orain zer? Galdetuko duzue askok. Usurbildarren eta zubietarren hitza entzunarazteko eta batez ere errespetarazteko konpromisoa hartzen dugu. Jadanik bilerak eskatu ditugu Usurbilgo Udala, Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Markel Olano Ahaldu Nagusiari zuzenean eman nahi diogu galdeketa utzitako emaitza, eta ezezko honen aurrean zer egingo duen galdetuko diogu. Bide batez, Batzar Nagusietan ordezkariak izan dauden alderdi politiko guztiekin ere bilerak eskatu ditugu, gure helburua baita mozio bat aurkeztea Gipuzkoako instituzio gorenean eztabaidatua izan dadin.

Erraustegia-Erabakia plataforma osatzen dugun kideok ahalegin horretan jardungo dugu hurrengo egunetan. Herririk hitz egin du, eta erabaki egin dugu.

Erraustegia-Erabakia Herri Plataforma”.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

“Erraustegiaren eta inposaketan aurrean, gazteak kalean egongo gara”

Foru Aldundiak lizitazioa aurkeztu diren enpresa taldeen berri eman eta gutxira, urriaren 31n Diputazioko egoitzan bertan erraustegiaren aurka mobilizatu zen Ernai gazte erakundea, atera zuten ondoko irudian ikus daitekeen moduan. “Ekimenarekin erraustegiaren inposaketa salatu, eta PNV eta PSEren erantzukizun politikoa jarri nahi izan dugu jo puntuan”, adierazi dute Ernaitik.



Urriaren 31n Diputazioko egoitzan bertan erraustegiaren aurka mobilizatu zen Ernai gazte erakundea.

Gaineratu dutenez, ez da “lehenengo aldia ordea, herritarren zein ingurumenaren aurkako erabaki politikoak hartzen dituztela”, etekin ekonomikoak eskuratu asmoz. Honen aurrean, gaz-

teak kalean izango dituztela ohartarazten dute. “Pasa den ikasturtean Gipuzkoako plazetan argi eta garbi geratu zen erraustegiaren eta inposaketan aurrean gazteok kalean egongo garela. PNV-PSE, ez

dizuegu utziko gure bizitzak heriotzara kondenatzen. Hartzen dituzten erabakiak hartzen dituztela, gazteok kalean egongo gara eta zuzen joko dugu erantzuleengana. Kalera!”, deitu dute.

Azaroaren 26an Donostian, GuraSOsek deituriko manifestazioa

Erraustegiaren lizitazioa geratzea eta parte hartze prozesua zabaltzea eskatu eta gai honen inguruan adostasuna lortzeko oraindik denbora badela aldarrikatzeko manifestazioa deitu du GuraSOsek azaroaren 26rako Donostian. Laster emango dituzte mobilizazio honen inguruko zehaztasunen berri. Antolaketa lanetan lagundu nahi duenak, idatzi dezala komunikazioa@gurasos.org helbidera.



Azaroaren 26an arratsaldeko 17:00etan egingo da manifestazioa.

Enkantera, Santuenerako udal etxebizitza bat

Santuenea 25 zenbakiko hirugarren ezkerreko helbidean kokatuta dagoen etxebizitza izango da Udalak enkantera aterako duena.

2015eko udaberrian atera zuten Udalak jabetzan duen pisu hau eta Santuenea, 17-1º A helbidean kokaturiko bizilekua enkantera, baina uda hartan bertan desertu deklaratu zuten deialdia. Orain, bi bizilekuotako bat berriz enkantera aterako du Udalak. Gutxieneko prezio bat finkatua dute; 106.323,45 euro. Gehienezkoa baita; 132.823,45 euro. Etxebizitza eraberritua dago barrutik.

Eskaintzak abenduaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira

Esleipen honetan parte hartzeko interesa dutenek, Usurbilgo Udalean eskura ditzakete beharrezko agiriak eta baita argibide gehiago ere. Eskaintzak abenduaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira. Epe hau igarota, eskaintzak irekitzeko hitzordua, “lizitatzailerak guztiei jakinaraziko zaie udal web gunearen bitartez”.

Informazio gehiago, Udaletxean

943 371 951

943 371 493 (Fax-a)

kontratazioa@usurbil.eus
usurbil.eus

Urriaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Parti
Parti
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Zuberoako ikastolak laguntzeko otarrak

Nafartarrak taldearen eskutik, bueltan dator Zuberoako ikastolak laguntzeko gabonei begira antolatu ohi duten elkartasun kanpaina. “Ikusiz hizkuntza sailean zer nolako lana egiten ari den Ikastola, Xiberoa edo Iparraldean, gure arbasoen hizkera berreskuratze prozesu honetan, zuen laguntzaren eske bagatoz. Zuei esker, euskararen tokia Xiberoan segurtatua izanen da”, adierazi dute Sohütako Eperra eta Alozeko Basabürüko ikastoletatik.

Gure laguntza beharrean dira, eta horretarako, haiek ekoiztako produktuak erostera animatzen gaituzte. Jasotako laguntza eskertuko dute. 2003az geroztik antolatzen duten elkartasun kanpainak bi helburu baititu; batetik, “tokiko janariak ezagutaraztea, Xiberoko etxalde eta enpresetan otarreak osatzen dituz-



2003az geroztik antolatzen duten elkartasun kanpainak bi helburu ditu: “Xiberoko tokiko janariak ezagutaraztea eta ikastolaren egoera ekonomikoa hobetzea”.

XIBEROKO JAKIEZ OSATUAK

“Saskiak abenduaren 9ra arte eska ditzakezue NOAUA!n. Eguberrien atarian banatuko dituzte Nafartarrak taldekoek”

ten ekoizpenak eskainiz”, eta “ikastolaren egoera ekonomi-

koa hobetzea, ibiltera gastu guztiak estaltzeko xedearrekin”.

Eguberrien bueltan

Produktu goxo askoez hornituriko otarrak abenduaren 9ra arte eska ditzakezue NOAUA!n. Eguberrien atarian banatuko dituzte Nafartarrak taldekoek. Halere, nahi duena-

rentzat, otar sorta bat berehala eskuratzeko moduan jarriko dute.

Saskiak

Ahūzki saskia, 40 euro

■ 450 gr ardi gazna, 125 gr ahate gibela, 150 gr bixkotx poltsa artisanala, 500 gr eztiā, 200 gr euskal xerriki pateā, 200 gr euskal xerriki odolkiā. Prezioā: 40 euro.

Irati saskia, 52 euro

■ 450 gr ardi gazta, 125 gr ahate gibela, 150 gr bixkotx poltsa artisanala, 500 gr eztiā, 400 gr euskal xerriki lukainka, 640 gr axoa xahalki xehatua saltsan. Prezioā: 52 euro.

Eskaerak egiteko garaia

■ Abenduaren 9ra arte, elkar-tea@noaua.eus, 943 360 321, edo lonxo@telefonica.net
■ Informazioā: ikaskoli.eu

Tokikom Jardunaldietan, NOAUA!ren moduko komunikabideen erronkak aztertuko dira

Duela bost urte, NOAUA! astekariak beste 20 tokiko hedabiderek batera Tokikom elkarteā osatu zuen. Eta orain 25 urte, tokiko komunikabideon etorkizuna marrazteko Arko Jardunaldiak egin ziren Arrasaten. Bi urteurren horiek ospatzeko, Tokikom Jardunaldiak antolatu dira. Datorren astelehenean egingo dira Arrasaten, eta edukietan, marketinean zein teknologian ditugun erronkei buruz jardungo dugu. Komunikazio arloko punta-puntako profesional eta enpresen esperientziak ezagutzeko aukera ere izango da bertan.

Tokian tokiko komunikabideok euskararen transmisio katean betetzen dugun papera



TOKIKOM Jardunaldien aurreneko edizioak, 2012koak, onarpen zabala izan zuen. Bigarren edizioā datorren astelehenean egingo da Arrasaten.

aztertuko da, eta, lehen aldiz, Tokikom Sariak banatuko dira. Urteko portadarik, edukirik eta ikus-entzunezkorik onenak sarituko dira asteleheneko jardunaldietan. Tokiko komunikabideotan lan handia egiten den arren, “sarritan tokiko publikoak baino ez du ikusten, eta sari hauen helburua

egindako lan bikain horiek publiko zabalari ezagutaraztea da”.

Jardunaldiok datorren astelehenean izango dira, azaroaren 14an, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean.

Izena emateko epea irekita dago: tokikom.eus/jardunaldiak

Sortu alderdia birfundatzen

Abian da Usurbilen ere, Sorturen birfundaziorako prozesua. 30 bat lagun bildu ziren aurreko ostiralean Aitzagan egin zuten aurkezpen ekitaldian, nahiz deitzaileek NOAUA!ri adierazi diotenez, 50 bat lagun dauden akreditatuta. “Fase kongresual honetara ezker abertzalearen oinarri sozial zabal horretako kide sentitzen diren guztiei egiten diegu parte hartzeko deia”, adierazi dute.

Prozesuaren egutegia

■ Azaroak 19 larunbata: PONENTZIA eta zuzendaritza taldeen hautaketa.
■ Abenduak 3 larunbata: Emendakin partzialak eta zerranda irekien hautagaiak.
■ Bi saioak goizeko 10:00etan Potxoenean.

Pintxo festa, tabernetatik plaza bizitzera

Indarberrituta dator azken urteotan herri erdiguneko hainbat tabernetatik barrera osatu ahal izan dugun ibilbide gastronomikoa; Hurbilago Elkarteak antolatutako Tipi-Tapa ekimena alegia. Edaritegiatik plazara jauzi egingo du igande honetan bertan abiatuko duen denboraldi berrian, Mikel Laboa plazan altxako duten karpa gune giro goxora. Goizeko 11:00etan hasita, jan edana aurkituko dugu bertan. Besteren artean, Lumagorri oilasko pintxoak jan eta sagardoa txotxetik edateko aukera izango da. Musikarik ez da faltako; herriko trikitilariak girotuko dute goiz parte.

Jan edana eskuratzeko txartelak erosi beharko dira. Eta adi txartel hauei; zenbakiuak izango baitira. Eta zenbakiok, ekimen honen amaieran, 14:30ak aldera egingo den zozketarako baliatuko dira. Hala da, ekimen honetan parte hartzeak saria dakar. Orain arte, Tipi-Tapan egiten zen moduan, 150 euroko erosketa balea jokoan jarriko du Hurbilago Elkarteak, jan edanera gerturatzen direnen artean. Antolatzaileek iragarri duteenez, baita opari gehiago ere.

Kalea girotzea xede

Hurbilago Elkarteko kide diren tabernariak dira egitasmo hau elkarlanean aurrera atera dutenak. Kalea girotzea dute helburu, hortik egitasmoaren izena; "Bizi Kalea". Tipi-Taparekin jorratu duten bidean aurrerapuso bat eman nahi dute, kale giroa indartzen segi. Alde horretatik, azaroaren 13an Mikel Laboa plazan kokatuko duten karpa gunea, azoka ibiltari berri honen abiapuntua baino ez da izango. Aurrerantzean hilean behin, karpa gune hau herriko gune ezberdinetan kokatuko dute, igandeko formula bera baliatuz; jan edana



Azaroaren 13an, Bizi Kalea ekimena: Lumagorri oilasko pintxoak jan eta sagardoa txotxetik edateko aukera izango da. Herriko trikitilariak girotuko dute Hurbilagoren ekimen berria.

BIZI KALEA

“Tipi-Taparekin jorratu duten bidean aurrerapuso bat eman nahi dute, kale giroa indartzen segi. Azaroaren 13an Mikel Laboa plazan kokatuko duten karpa gunea, azoka ibiltari berri honen abiapuntua izango da”

eskainiz, musikaz eta zozketekin girotua.

Kale giroa bizitu nahi dute, herri bizitza sustatu, eta horretarako Kaxko osora hedatuko dute ekimena, egitasmoari izaera ibiltaria emanaz.

Azoka formatoa

Denboraldi honetarako, gutxira, "Bizi Kalea" egitasmoari loturiko 7 hitzordu finkatu ditu Hurbilago Elkarteak. Horiematik bostek azoka formatua izango dute eta Kaxkoko gune ezberdinetan egokituko dute karpa. Azkena, maiatzean ospatuko da. Edizio berezia izango da honakoa, dendariekin batera ospatu asmo baitute azoka.

Baina hitzordu honen inguruko xehetasunen berri, aurrerago emango dituzte antolatzaileek.

Egutegia

Bestalde, denboraldi honetan zehar, orain arteko Tipi-Tapa formatu ezagunari loturiko bi egun ere ospatuko dira. Momentuz, eta aldaketarik ez bada behintzat, honatx Hurbilago Elkarteak kale giroa bizi-tzeko finkatu duen egutegia:

- **Azaroak 13, igandea:** 11:00etan hasita, lehen azoka Mikel Laboa plazan.
- **Abenduak 11, igandea:** Bigarren azoka Artzabalena.
- **Urtarrilak 15, igandea:** Munduko janariaren inguruko Tipi-Tapa tabernaz taberna.
- **Otsailak 12, igandea:** Hirugarren azoka frontoian.
- **Martxoak 12, igandea:** Laugarren azoka Txapeldun taberna aurreko plazan.
- **Apirilak 16, igandea:** Koloreen inguruko Tipi-Tapa tabernaz taberna.
- **Maiatzak 13, larunbata:** Hurbilago Azoka frontoian.

Antolatzailea: Hurbilago Elkar-
tea.

Usurbilgo txoko ederrenaren bila

“Usurbilgo txokorik eder eta berezienen” bila segitzen du Hurbilago Elkarteak. Horretarako antolatu dute argazki profesional eta amateurrei zuzenduriko argazki lehiaketa.

- Bi kategoria bereizi dituzte; 4-16 urte artekoak batetik, eta 17 urtetik gorakoak bestetik.
- Aurrez argitaratu ez eta urriaren 1az geroztik Usurbilen eginiko argazki bat edo bi aurkeztu ahal dira (argazkiaren tokiko helbidea eta deskribapena adierazi). Argazkiko edukien erantzulea aurkeztu duena izango da.
- Argazkiak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, Ivan Perez argazkilaria-
ren establezimenduan; Bordaberri 3, 2.lokala.
- Bi sari; gazteen kategorian, Fujifilm XP90 argazki kamera; helduenean, Canon 760D + 18-55 mm EF-S IS STM kamera.
- Argibide gehiagorako: hurbilago.com
Facebook: Hurbilago

FAMILIAN, LAGUNARTEAN ETA NONAHI EUSKARARI EUTSI

Euskara ari du eta Irten armairutik, 100 da 100 200 dira-eta!

Etxean ikasten dira bizitzako hainbat arau, jokabide eta ohitura, eta etxetik jasotzen da hizkuntza ere. Batzuek euskara izan dute lehen hizkuntza, etxekoa; beste batzuek, berriz, etxetik kanpo ikasi dute euskara. Etxetik kalera eraman du zenbaitek euskara; kaletik etxera beste hainbatek. Etxeak eta kaleak euskaradunez bete ditugu, baina gure artean gaztelaniaz ari gara maiz.

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da abenduaren 3an, eta Buruntzaldeko herrietan ere ospakizun ugari antolatuta izan da egun horren bueltan. Aurtan, ordea, ekimen desberdin batek hartu ditu Buruntzaldeko kaleak eta etxeak. Badute guztiek apustu eta desfioetik, indar probatik. Ez dira ezeren erakustaldi ezta sustapen eta atxikimendu ekintza soilak ere; nor bere buruari jarri dizkion erronkak dira, ohi-turak aldatzekoak, euskarari eustekoak, izan familian, lagunartean, lantokian edota kirol taldean.

Euskarari Eutsi astebetez, Hernanin

Hernanin, Eutsi Euskarari ekimena jarri da martxan. Urriaren 15etik azaroaren 26ra bitarteko sei aste horietan, ehunka dira astebete aukeratu eta euskara hutsez bizitzeko erronkari aurre egiten ari direnak.

Horietako bat da Agustí Serrres Rodríguez, Hernanin bizi den kataluniarra. Berezi, alabekin euskaraz egin nahi zuelako hasi zen euskara ikastean, eta dagoeneko, kalean



Herri bakoitzean ekimen desberdinak jarri dira martxan, euskarari eusteko.

ere euskaraz egiten du. Indar proba familiara eraman nahi du orain. Etxeko hizkuntza, osotasunean, euskara izatea da bere buruari jarri dion erronka. Azken bi aste hauetan parte hartzerantz animatzen denak badauka aukera, izena emateko: AEKn, Doberan, edo euskararaiduhernanin@gmail.com helbidean.

Astigarragan, '100 da 100, 200 orduz euskaraz'

Antzeko ekimena jarri dute

martxan Astigarragan ere, eta parte hartzerantz animatu dene-tako bat da Jorge Rodríguez Gómez. Alabekin euskara hutsean bizitzea lortu duela aitortzen du, eta '100 da 100, 200 orduz euskaraz' ekimenean parte hartuta, kalean ere euskara hutsean bizitzea lortu nahi du orain.

Ekimenari hasiera emateko, TELP tailerra egingo dute egitasmoan izena eman dutenek, euskaraz bizitzeko estrategiak lantzeko, eta argazki erraldoi

batekin emango diete hasiera 200 orduetara.

Lasarteoriarrak, Irten Armairutik!

Era berean, ekimen berezia prestatu dute aurtan Lasarte-Orian. Ohiko Euskararen Maratoia, 40 orduz euskaraz aritzeko, 40 egunetara luzatu dute, Irten Armairutik ekimenarekin.

Maratoia urriaren 22tik 23rako asteburuan egin zuten, eta urriaren 24an hasi eta abenduaren 3ra arte, astez aste ehunka lasarteoriarrak ari dira armairutik atera, eta euskaraz bizitzen. Belarriprest edo Aho-bizi izan, 40 egunean euskara da nagusi, Lasarte-Orian.

AndoaINDARRA, euskararen alde indarrak batzeko

Dagoeneko ekimen berezia ospatu duena, berriz, Andoain da. Herrian euskararen ezagutzak gora egin badu ere, erabileran ez da nabari igoera hori, eta horregatik, AndoaINDARRA euskaraz eguna antolatuta zuten irailean.

Herri euskalduna dela erakusteko, denen indarrak batu eta herriko kaleak euskararekin bustitzea izan zuten helburu.



‘EUTSI EUSKARARI’, AGUSTÍ SERRES RODRÍGUEZ

“Erdaraz egiten badidate ere, berdin zait; euskaraz jarraitzen dut”

Kataluniatik Euskal Herriera etorri zen Agustí Serres Rodríguez, duela 12 bat urte, eta azken zortziak Hernanin egin ditu. Alaba jaiotzean erabaki zuen euskaraz ikastea. “Bera izan da nire irakaslea!”, dio. Etxekoen laguntza ezinbestekoa izan da Agustírentzat, euskara ikasteko. Orain, bera da etxetik kaleara euskara ahoan daramana.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Alaba zaharrena jaiotzean hasi nintzen pentsatzen, hemen geratzea erabakiz gero, euskaraz ikasi behar nuela. Horrela, orain 8 bat urte hasi nintzen ikasten.

Nolakoa izan da ikasketa prozesua?

Hasieran AEKn egin nituen bi

AGUSTÍ SERRES

“Etxeko laguntzarik gabe ezin duzu ikasi. Alabarekin egunero aritzen naiz. Bera da nire irakaslea!”

urte. Gero, hiruzpalau urtez utzi egin nuen, eta aurrerago, beste urtebetez aritu nintzen. AEKn pila bat ikasi nuen. Oso ondo irakasten dute.

Etxean praktikatzen duzu?

Alabarekin, egunero. Bera izan da nire irakaslea! Etxeko laguntzarik gabe ezin duzu ikasi. AEKn bakarrik egiten baduzu euskaraz, eta gero erabiltzen ez baduzu, ezinezkoa da.

Beraz, etxean hizkuntza ohitura berriak hartu dituzue?

Gero eta gehiago hitz egiten duzu euskaraz. Umeen au-

rrean, beti. Alaba txikiari, ordea, katalanez ere egiten diot. Katalana, gaztelania eta, batez ere, euskara erabiltzen ditugu. Bikotearekin gaztelaniaz egiten dut. Alaba zaharrenarekin euskaraz egiten dut, garrantzitsua iruditzen zitzaidalako berarekin euskaraz hastea. Baina eskatzen badit, katalanez ere egingo diot. Etorkizunean hirurok katalanez egitea ere asko gustatuko litzaidake.

Etxeko ohiturak atera al dituzu kalera? Ala zailagoa da kalean euskaraz egitea?

Batzuek berehala aldatzen dute hizkuntza, ikusten dutenean ez dakizula oso ondo. Baina, orokorrean, mantentzen dute, komertzioetan, kalean... Baina erdaraz egiten badidate ere, berdin zait; euskaraz jarraitzen dut nik, gustatzen zaidalako.



Agustí Serres kataluniarra da, baina 12 urte inguru daramatza hemen.

Zein da hori lortzeko sekretua?

Niretzako erraza da. Ni lotsaga-bea naiz! Ez dago sekreturik. Kontua da lotsa etxean uztea, eta gauzak errepikatzea. Azkenean, nahi gabe ateratzen dira gauzak ondo, edozein hizkuntzarekin bezala. Orain, familia osoak euskarari eusteko erronkan hartuko dugu parte, eskolarekin. Seguru lortuko dugula!

‘100 DA 100, 200 ORDUZ EUSKARAZ’, JORGE GÓMEZ RODRÍGUEZ

“Nire lorpen handiena izan da, alabekin dena euskaraz egitea”

Jorge Gómez Rodríguez familia erdaldunetik dator. Donostian bizi zela, orain 14 bat urte, hasi zen euskara ikasten, “alabekin euskaraz bizitzeko”. Azken 10 urteetan, Astigarragan ere euskaraz bizi daitekeela ikusi du. Familiak lagundu dio Jorge Gómez Rodríguez euskara ikasten, eta orain, etxean lortutako txip aldaketa kalera eramatea du helburu, ‘100 da 100, 200 orduz euskaraz’ ekimenarekin.

Familia erdaldunekoa izanik, nola ikasi duzu euskaraz?

Donostian bizi nintzela, orain 14 bat urte, euskaltegi batean hasi nintzen, zerotik ikasten. Lau urte egin nituen. Gero, tar-te batean utzi egin nuen, eta Astigarragara bizitzera etortzean, orain 11 urte edo, AEKn hasi nintzen. Alabak jaiotzean,

JORGE GOMEZ

“Lehengo harremanak, erdaraz sortutakoak, aldatu nahi ditut, eta euskaraz egin”

eta asmoa zen alabekin euskaraz bizitzea. Horrek bultzatu ninduen.

Orduan, etxean euskaraz egiten duzue orain?

Alabekin bai. Nire lorpen handiena izan da, alabekin dena euskaraz egitea. Bikotea ere euskalduna da, eta horrela hasi nintzen ikasten. Berarekin eta bere familiarekin harremanak izateko, euskaraz ikasteko beharra sentitu nuen. Hasieran, bere familiak lagundu zidan.

Etxetik kalera ere, eraman al duzu euskara?

Nire ustez, hemen, Astigarragan, kalean, erraza da euskaraz egitea. Euskaltegian serio hartuta ere, ez da nahikoa. Behar duzuna da, zure burua askatu, txipa aldatu. Horrela erabaki nuen euskaldunekin euskaraz egingo nuela. Nik egiten badiet, haiek ere euskaraz egingo didate, pentsatu nuen. Zaila izan zen salto hori egitea. Oraindik gauza asko gaizki esaten ditut, hanka sartzen dut... Baina horrek ere laguntzen dit, nire burua zuzentzen ikasteko. Gainera, egun, telebista, irratia egunkaria... dauzkagu euskaraz. Benetan ikasi nahi baduzu, erraza da.

Ikasten jarraitzen duzu, hortaz?

Euskara hutsean bizi nahi dut; beraz, oraindik ez dut lortu nahi dudana. Maila polita daukat,



Jorge Gomezen familia erdalduna da, baina alabekin ikasi du euskaraz.

baina dena euskaraz egiten jarraitzeko, ikasten jarraitu behar dut. Alabek ere gehiago dakite!

‘100 da 100, 200’ ekimenean hartuko duzu parte. Zergatik?

Euskaldunekin euskaraz egiten dut. Baina lehengo harremanak, erdaraz sortutakoak, aldatu nahi ditut, eta aurrerantzean, euskaraz egin. Uste dut herrian giro polita sortuko dela, eta umek ere euskaraz entzuten bagaituzte, zerbait aldatuko da.





[Klik! batean](#)

Sinkronia

Gertakariak edo fenomenoak denboran aldi berean gertatzea. Hori litzateke sinkroniaren definizioa. Kasu honetan, lehen ilarako bi dantzariak eta argazkilariaren klik hotsak bat egin duten unea.

Argazkia: Ion Märkel

Kanturako tresna berria

Tamainaz handiagoa, irakurterraza izan da din. Kantu zaleen gozamenerako, abesti gehiagoz hornitua; 300 bat guztira. Aurkibide hoberekin, gustuko abestia azkar batean aurkitzeko. Kantei buruzko xehetasunekin. Bistan denez, berrikuntzekin bai, baina orain arteko filosofiari eutsiz.

Horregatik, liburuxka berri bat baino, Kantu Taldetik aldizkari honi adierazi diotenez, NOAUA! Kultur Elkartearekin eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean argitaratu berri dutena eta jada eskuragarri duzuen, kantu-liburuxka eguneratua dugu. Gutxienez Usurbilen plazaratu den hirugarrena jada. Lehenengoa duela zenbait hamarkada argitaratu omen zuen Udalak, "Usurbil kantuz" izeneko liburuxka txiki bat. Gero etorri zen, Kantu Taldea osatu berri, 2010ean, 200 abesti bildu eta "urteotan erabili dugun" liburuxka. Ordutik ordea, "egunero ari ginen abestien kopurua berritzen eta gehitzen. Beste 100 bat kantu gehiago ere bagenituen eta horrek eraman gintuen liburuxka berri eta moldatzera".

Euskal Herriko Kantuzaleen Sarean da Usurbilgo taldea. Hain zuzen, Ipar Euskal Herri edota Nafarroara abestera joan eta jabetzen ziren, bazituztela hutsuneak eskuartearen baliatzen zuten kantu-liburuxkan. Eta horiek osatzen ahalagindu dira oraingoan, nahiz lanketa honek ez duen etenik. "Herriari kantatzeko lan tresna bat eman nahi genion", adierazi dute.

Aurkezpen ekitaldia, Kulturaldiko afarian

Kantu-jira eta kantu-bertso-afaria antolatuta du Kantu Taldeak NOAUA!rekin elkarlanean ostiral honetarako,



Liburuxka berria plazaratu du Usurbilgo Kantu Taldeak, "kantuan aritzea erraztuko digun argitalpena".

KANTU TALDEA

Azaroaren 11n, NOAUA!k Artzabalen antolatuta duen bertso afarian aurkeztuko dute kantu liburu berria

Kulturaldiaren baitan. Afarian zehar aurkeztuko dute liburu berritua.

"Emaizarekin oso gustura gaude", adierazi diote NOAUA!ri kantuzaleen bilguneetik. Atzoko eta gaurko euskal kanta ezagunak bildu dituzte argitalpen berrituan. Kanten ondoan egileen azalpena erantsi diote eta abestea erraztuko diguten "hitzak eta doinuak lotzen edo josten laguntzen duten ikurrak".

Imanol Urbietaren omenez

Imanol Urbietaren omenez dute azaroaren 26ko saioan. "Usurbilgo guraso, neska-mutilak, ikastolakoak, gonbidatuak zaudete", adierazi dute. Urbietarekin elkarlanean aritutakoa da Jaione Eskudero Udarregi Ikastolako irakaslea. Ikasturte berri honetan, Kantu Taldea sortu zenetik bilgunea bideratu duen Susi Elosegik utzitako lekua hartu du Eskudero. Susik eginiko lan handia in-

dartzen segiko du Jaionek aurrerantzean. Ikastaroa bera eta kalean antolatzen diren ekitaldiak zuzenduko ditu.

Kantuan ere, bizi euskaraz

Beti ere, sakoneko helburuez ahaztu gabe. Kantuen bidez, euskal giroa bizirik mantendu eta indartzea nahi baitu taldeak. "Kantuan euskaraz ari bagara, bizi gara euskaraz ere. Kantuaren transmisio bat egin nahi dugu. Kantatzen ari garela, euskal giroa txertatzen dugu kalean", gogorarazten digute. Halere, transmisio lan hau haiek bakarrik ezin dutela egin diote eta laguntza eskatzen diete herriko tabernari eta dendariei, euskal musikaren aldeko apustu sendoagoa egin dezaten, gainerako musika baztertu gabe noski.

"Adiskidetu egiten du kantua"

Kantua batu egiten duela gogorarazten dute Kantu Taldetik, lagun artea zabaldu. "Adiskidetu egiten du kantua. Merezki du behingoz entzule izatetik gu partaide izatera pasatzea", deitzen gaituzte. Kantatzeko garai bateko zaletasuna berreskuratu nahi dute, "horretarako, liburuxka hau erosi".

Liburua, eskuragarri

- Azaroaren 13ra arte: "NOAUA!k 20 urte!" Sutegi-ko erakusketan.
- Azaroaren 11ko Artzabalgo kantu-bertso-afarian.
- Azaroaren 14tik aurrera, NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Prezioa: 5 euro. Elkarlanean: Kantu Taldea, NOAUA K.E. eta Usurbilgo Udala.

Kantu Taldearen hitzorduak

- Azaroak 11, ostirala: 19:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik. 21:00 Kantu-bertso-afaria Artzabalen.
- Azaroak 26, larunbata: 19:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik. Imanol Urbietaren omenduko dute kantuen bidez.
- Urtarrilean: kantu ikastaro berriaren abiatzea. Saiok, asteartero 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolako kantugelan.



Kaiola, hondakinez betetzen



Astlehenean itxura hau zuen kaiolak. Aurreko asteburuan lurretik bildutako hondakinak ageri dira bertan.

Etxean ziurrenik ez, baina kalean hondakinak beti ez dira birziklatzeko jarriak dauden ontzietan sartzen. Oraindik lurrera botatzeko ohitura bada. Horren erakusle Usurbilgo Udalak Mikel Laboa plazan azaroaren 4an, ostiralez jarri zuen kaiola. Udal langileak kalean botatuko poltsak bildu-litxarrerria poltsak, pipa azalak, edota freskagarri latak bildu dituzte gehienbat- eta kaiola honetara botatzen hasi dira,

UDALA

“Erabili zakarrontzi horiak, ez bota lurrera. Etxean egiten duzuna, kalean zergatik ez?”

guztiok ikus dezagun, oraindik orain badela zer hobetua. Jarrera aldaketa horretan eragin nahi du Udalak. Kalean ere, etxean bezala hondakinak egoki kudeatzen ahalegintzea.

“Erabili zakarrontzi horiak, ez bota lurrera. Etxean egiten duzuna, kalean zergatik ez? Herriak eta ingurugiroak esker-tuko dizu”, ohartarazten dute kaiola honetan Udalak jarritako panelak. Lurrera bota ordez, ontzietan egoki sailkatuz gero, hondakinok duten erabilgarritasuna azpimarratzen dute Udaletik. “Lurrera botatzen ditugun poltsa hauekin, bada-kizu zenbat gauza lor ditzakegun?”, gogorarazten dute.

Gosari osasuntsua

Usurbil F.T.-k bete berri dituen 40. urteen baitan, hainbat ekimen antolatzen ari dira. Larunbatean, gosari osasuntsua egiteko aukera izan zuten, Itziar Otxagabia medikuarekin elikadurari buruz antolatu zuten solasaldian. Guraso eta jokalariek parte hartu zuten hitzaldian. Hitzordu gehiago laster; azaroaren 20an, 2016-17 denboraldirako osatu dituzten taldeen aurkezpena egingo du Usurbil F.T.-k Mikel Laboa plazan.



Itziar Otxagabiaren hitzaldian, jokalariek eta gurasoek hartu zuten parte.

Ordu laurdeneko aparkaleku berriak

Kale Nagusian bi gune berri eta Bordatxo taberna pareko errotondan ordu laurdeneko beste gune bat egokitu dituzte Usurbilgo Udalak eta Hurbilago Elkartek. Haez gain, ordubetez aparkatua utzi daitekeen fondo urdinez margoturiko beste 22 gune daude Kaxkoan. Eta zamalanetarako beste 25 plaza. Plaza kopurua handituz, Udalak eta Hurbilagok usurbildarrei herriko saltokietan erosketak egitea erraztu nahi diete. Gune guztiok erabiltzeko, ezinbestekoa izango da aparkamendu-diskoa izan eta autoan jarrita uztea, ibilgailua aparkatua dagoen artean. Oraindik eskuratu ez dutenek, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan eska dezakete.

Ostiral honetan, Aitzagaren lau eta erdiko finala

Hilabetez kanporaketak eta azken faseko neurketak jokatu ostean, final handiaren txanda orain. Ostiral honetan, azaroaren 11n, Aitzaga tabernak antolatutako lau t'erdiko pilota txapelketako final handia, 20:00etan hasita Usurbilgo frontoian. Kirol ekimen honetan zehar parte hartu duten 16 bikoteetatik bi heldu dira amaiera honetara: Motza-Esnaola eta Urkamendi-Beloki. Haietako batek irabaziko du txapelketa.

Proba moduan egin dute kirol txapelketa hau. Garai batean ere antolatzen zuten eta berreskuratu egin nahi zuen Aitzaga tabernak. Negu honetan, edizio berri bat prestatzen hastekoak dira.

Bazkide izateagatik, Kulturaldiko sarrerak opari

NOAUA! Kultur Elkarte-ko bazkide izateak di-tuen abantailen artean dago, antolatzen ditugun ekitaldietarako sarrerak merkeago eskuratzea. Edota doan. Segidan dituzue azken zozketetako bazkide sarituak. Hurrengoia zu izan zaitezke, ez ahaztu. Bazkide ez bazara, gerturatu egunotan Sutegiko erakusketara edo etorri NOAUA!ra eta segituan tramitatuko dizugu.

Sarituak: Ana Aizpurua

■ Saria: Orbeldi Dantza Taldearen emanaldirako 2 sarrera.

Sarituak: Ainhoa Aizpurua

■ Saria: "Non gaude?" antzezlanerako 2 sarrera.

Sarituak: Josu Furundarena

■ Saria: Ruper Ordorikaren kontzerturako 2 sarrera.



Ana Aizpuruak Orbeldi Dantza Taldearen saioaz gozatzeko aukera izan zuen. Ainhoa Aizpuruari datorren larunbateko antzerkirako bi sarrera tokatu zaizkio. Josu Furundarenari berriz, Ruper Ordorikaren saiorako bi sarrera.

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City
- * Aginagako Arrate taberna
- * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik/!

tren eta autobus

ordutegia 16/17

Gure Esku Dago 2017ko maiatzean egin nahi du herri galdeketa Usurbilen

Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldea ez da geldirik egon. Martxan jarraitzen du eta ikasturte honetarako dituzten asmoak eta proposamenak igorri dizkigute prentsa-ohar bidez. 2017ko maiatzean Lasarte Oriarekin batera Herri Galdeketa egiteko asmoa lantzen ari dira. Antolaketan partehartzeko jendea beharko denez, laster bilera deialdi bat egingo dute.

Aurreko urteetako ekintza masiboen ondoren Gure Esku Dago dinamikak lanean jarraitzen du. "Osasuntsu jarraitzen du herriz herri eta lurralde guztietan dinamika ezberdinak aurrera eramaten eta erabakitzeko eskubidea lantzen eta bidea egiten. Zuzendaritza talde indartsua osatu zen eta aurrera goaz", halaxe adierazi digute.

"Ikasturte honetarako herri galdeketa dira helburu. Leku bakoitzeko galdeketa estrategia orokor bat bezala hartu behar ditugu. Erabakitzeko eskubidea gauzatzeko bide horretan hiru lelo hauek ditugu garbi. Bat: prest gaude erabakitzeko. Bi: erabakitzen hasi gara. Hiru: erabakiko dugu".

2017rako hain zuzen, "herri-tarrak pixkanaka ahalduntzen jarraitzeko" herri galdeketa egingo dira Euskal Herriko txoko askotan. Martxoaren 19an Oarsoaldean, Tolosaldean, Hernanin eta Astigarra-gan. Apirilaren 2an Lea Artibai eta Uribe Kostan. Maiatzean



Lasarte-Orian eta Usurbilen ere egingo da herri galdeketa, eta aldi berean. Hori dena bideratzeko jendearen partehartzea funtsezkoa izango da. Bilera ireki baterako gonbitea luzatuko dute laster.

GURE ESKU DAGO USURBIL

Ikasturte honetan, herri galdeketa dira Gure Esku Dago mugimenduaren helburu. "Uda aurretik eta ondoren hainbat bilera egin ditugu horretarako. Lan talde txikia osatzen dugu baina 2017ko maiatzean Lasarte Oriarekin batera herri galdeketa egiteko hausnarketa eta diseinua egiten aritu gara"

Urola Kostan eta Lasarte-Orian. Ekainan Nafarroan...

"Eta Usurbilen zer? Usurbilen zer? Hori da galdera! Uda aurretik eta ondoren hainbat bilera egin ditugu horretarako. Lan talde txikia osatzen dugu baina 2017ko maiatzean Lasarte Oriarekin batera herri galdeketa egiteko hausnarketa

eta diseinua egiten aritu gara". Hori aurrera eramateko aurreikuspenak egiten aritu dira beraz, beharrezkoak izango diren giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta lan-taldeen kopurua kalkulatzeko.

Orain, beste fase batean sartzeko momentua dela dio Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak. "Sagardoa egin ahal izateko sagarrak jo eta zanpatzen hasi beharra daukagu. Urtea amaitu baino lehen lan taldeak sortzea izango da erronka. Horixe izango da hurrengo asteetako zeregina. Herri bat gara. Erabakitzeko eskubidea dugu. Herritarron garaia da. Gure esku dago". Datorren asteko NOAUA!n emango dizkigute xehetasun gehiago, baina laster bilera bat deituko dute, galdeketa burutu ahal izateko herritarren partehartzea ezinbestekoa izango baita.

Afari beganoa eta Bertxortan, Gaztetxean

Hainbat ekimen antolatzen ari dira lau urte bete dituen Usurbilgo Gaztetxea, urte amaiera honetarako. Haste-ko, afari beganoa ostegun honetan eta Bertxortan ikuskizuna:

Hurrengo ekimenak

Azaroak 10, osteguna

■ 20:30 Afari beganoa borondatearen truke, Usurbilgo Gaztetxean.

■ Ondoren, Bertxortan (antzerki eta bertsoen ikuskizuna).

Abenduak 8, osteguna

■ 20:30 Afari beganoa borondatearen truke.

Abenduak 17, larunbata

■ III. Kaosa eta Lentejak jaialdia.

"Hasi prestatzen dilista errezeta berriak txapelketarako, lehia ziurtatua baita-go!"

Abenduak 24, larunbata

■ Kitarrentzako pedalen tailerra. "Kitarrentzako pedalak garesti daudela eta nazkatuta, geronek egin ginitzake eta hori ikasteko tailerra egingo dugu. Horrela Olentzerori eskatu beharrik ez! Pedalen menua laster zabalduko dugu! Interesatuak deitu 608 566 683 zenbakira".

■ Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com

600 024 825

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Bi argazki lehiaketa martxan

Santuenea Kultur Elkar-teak antolatu du ekime-na. “Udazkena” da parte hartu nahi dutenentzako hautatu duten gaia. 4-14 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago txapelketa. Lanak, azaroaren 15etik 30era jasoko dituzte antolatzaileek. Informazio gehiago, Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan jaso daiteke.

Hurbilagoren Argazki Lehiaketa

■ Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi argazki aurkeztu ahalko ditu; Usurbilen eginiko argazkia izan beharko du (argazkiaren tokiko helbidea eta deskribapena adierazi).

■ Argazkiak alde zuzenetik argitaratu gabea izan behar du, urriaren 1etik azaroaren 15era arteko tartean eginikoa; argazkiko edukien erantzule bakarra argazkia aurkeztu duenarena izango da.

■ Argazkiak azaroaren 15a



Santuenea Kultur Elkar-teak antolatu duen lehiaketa 4-14 urteko gazteei zuzendua dago.

HURBILAGO LEHIAKETA

“Identifika daitezkeen pertsonak agertzen diren argazkien kasuan, lehiakideek pertsona horien baimena izan beharko dute”

baino lehen aurkeztu beharko dira, Ivan Perez argazkilaria-ren establezimenduan; Borda-

berri 3, 2. lokala.

■ Saria, haur eta gazteen kategorian: Fujifilm XP90 argazki kamera.

■ Saria, helduenean: Canon 760D + 18-55 mm EF-S IS STM kamera.

■ Saria, Argazkiak herriko saltokietan jarriko dira ikusgai.

■ Argibide gehiagorako: hurbilago.com /

Facebook: Hurbilago.

Erakusketa berria Artzabalén



Maria Angeles Manterola eta Pilar Herreroen lanak topatuko dituzue.

Oraingoan bi artisten sortze lanak ikusgai izango dituzue Gure Pakea Elkartearen egoitzan. “Maria Angeles Mantero-laren lanak, txuri beltzean arkatzez egindakoak, pertsonaia ezagunen erretratuak eta

karikaturak. Eta koloretan Pilar Herreroenak, Zarauzko euskal jaietan euskal mitologiaren in-guruan egindako herri antzerkiko pertsonaien irudiak, akri-likoz eginak”, berri eman dute Artzabalek.

Haurrentzako musika tailerra

Zumarte Musika Eskolan 0-3 urte bitarteko haurrentzat egun bateko musika tailerra antolatu dute. Azaroaren 26an egingo da baina alde zuzenetik eman behar da izena: azaroaren 7tik 11ra Zumarteko bulegoetan.

■ Tailerraren data: azaroak 26 larunbata, goizez.

■ Iraupena: 45 minutuko saioa. Apuntatzen den jendearen arabera saio bat baino gehiago egingo dira.

■ Izen-ematea: azaroak 7-11 bitarteko astean. Astearte, ostegun, ostiralean 18:00-19:30 bitarte Zumarteko bulegoan.

■ Prezioa: 15 euro familiako (haur bat + heldu bat).

■ Informazio gehiago, Zumarteko bulegoan: 943 371 594.

Elkarteen Arteko

XVIII. Mus Txapelketa

Aurtengo elkarten arteko mus txapelketa Txokoaldeko Erroizpek antolatuko du. Azaroaren 30erako elkarte barruko txapelketak burututa egon behar dute eta elkarte bakoitzetik finalera joango diren bi bikoteak zein diren jakinaraziko zaio Erroizpe Elkarteari egun horretan bertan elkartean 19:00etan egingo den bileran. Finala abenduaren 17an jokatu da Erroiz-pen arratsaldeko 16:30ean.

Azaroaren 20an

Zubietan, Txerriaren

Festa

Azaroak 20, igandea

Zubieta Pilota Elkartearen aldeko festa izango da:

■ Goizean zehar, postuak: gazta egilea, pilota egilea, larruz eginiko lanak, sagardo egitea, ukenduak, ogia, beira...

■ 10:00 Txerri-hilketa ondorengo lanen erakusketa.

■ 10:15 Txistorra, odolki eta saltxitxen ekoizpena. Ondoren, pintxoak salduko dira.

■ 12:00 Gaztetxoen arteko Joko Garbiko partidak.

■ 14:00 Bazkaria frontoian, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsoariekin. Menua: Eusko Label Tolosako babarrunak eta Ibarlur Ibarako piparrak, Lumagorri oilaskoak, gazta, kafea, kopa. Txartelak aurrez salgai Alamandegín eta Barazarren. “Bazkalostean, kantuan arituko gara”.

■ Antolatzailea: Zubieta Pilota Elkartea.

Yolanda Arrietaren

bi saio Aginagako ludotekan

■ Azaroak 16/23, 18:15 Yolanda Arrieta, Aginagako ludotekan. Haur nahiz gurasoentzat. Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkartea.

Urte amaiera oparoa mendizaleentzat

2016. urte amaierako plangintza aurkeztu du Andatza M.K.T.-k, aurreikusitako bakoaren ekitaldi gehiagorekin. Urtero moduan, hilabete amaierarako antolatu duten Mendi Astearekin agurtu ohi baitute urtea. Baina azkenean, "bazkideen gogoak ikusirik, abenduan eta urtarrilean ere mendi irteerak antolatzea erabaki da".

Mendi irteerari, 2017rako txangoek emango diete jarraipena. Urte berriko mendi irteeren egitaraua hain zuzen, herritarren proposamenekin osatu nahi dute. Ekarpinak egitera animatzen gaituzte. "2017ko egitaraua prestatzen hasi behar dugu eta ibilbideak proposatzea eskertuko genuke. Buruan duzun mendi irteera hori aurkeztu ezazu ahal den xehetasun eta ezaugarri gehienekin. Krokisa edo mapa, ibilbidearen luzera, abiapuntua, amaiera tokia eta igotzen diren lepo edo gailurrak oso datu interesgarriak dira ibilaldia aurkeztetarakoan. Proposatzen dituzun ibilbideak aurkezteko, Andatza Mendi Elkarteko egoitzan



Aurreko asteburuan Toloño mendian izan ziren. "Urizaharrik Bastidarako bidea egin ondoren, Eskuernagako upategian ospatu genuen merezitako otordua". Argazkia: Andatza M.K.T.

aurkituko gaituzte ostegunetan arratsaldeko 19:00etan. Andatzako (andatza@hotmail.com) e-postara bidali ditzakezu iradokizunak edo Andatzako lokaleko buzoian utzi", berri eman dute Andatza M.K.T.-tik.

Mendi Astea

Azaroak 23 asteazkena

■ Ordua: 19:30ean Sutegin.

■ Emanaldia: Andatzakoak Ordesako Monte Perdidon. 2016ko irailaren 9tik 11ra, 40 mendizalek Ordesara egindako irteeraren inguruko ikusentzuzkoa.

Azaroak 25 ostirala

■ Ordua: 19:30ean Sutegin.

■ Emanaldia: Autobabesa mendi jardueretan.

■ Hizlaria: Mikel Nogues. Segurtasun eta larrialdi kudeaketan graduatua. DYako Erreskatelaldeko arduraduna.

Azaroak 26 larunbata

■ 8:00etan, Frontoi atzetik abiatuta, mendi irteera Usurbilgo inguruetan. Ondoren, bazkaria Patri jatetxean ospatuko da. Bazkarira joateko izena aldeztu aurretik eman beharko da, ikus-entzuzko saioak programatu diren egunetan, Sutegin jarriko den mahaian.

■ Oharra: Sutegin burutuko diren ekitaldiak hasi aurretik, 2017ko federatu txartelak berri eta asteburuko ibilaldirako izena emateko aukera izango da Sutegin kultur etxean bertan. Informazio gehiago: andatza.com

Egiako Txapelketa, Pagazperentzat

Jubenil zein nagusien mailako finaletan, Pagazpe taldeko pilotariak nagusitu ziren. Zorionak!

Jubenilak:

Exposito-Aranguren 22
Alberdi-Apezetxea 9

Nagusiak:

Santxo-Gorrotxategi 22
Urretabizkaia-Garmendia 16

Gipuzkoako Txapelketa

Azaroak 10, 20:45ean Aginagan:

Gomazko pala 1.maila:
Errasti-Urdanpilleta (Pagazpe)/
Loiolatarra 1



Argazkian, bi bikoteak sariak eskuratu berri: Exposito-Aranguren (jubenilak) eta Santxo-Gorrotxategi (nagusiak).

Errebote txapelketako finala
Euriagatik azaroaren 6an bertan behera utzi zuten Endika Abril Errebote Txapelketako finala

igande honetan jokatu da, goizeko 11:00etan Villabonako plazan. Zubieta- Luzaz Gazte, aurrez aurre.

Usurbil KE-ren errifak

Urriaren 29an Usurbil Kirol Elkartek eginiko zozketako zenbaki sarituak dituzue segidan:

- 1.saria: 2 lagunentzako afaria Olarrondo jatetxean: 9.995.
- 2.saria: 50 euroko erosketa balear Marije arropa dendan: 6.488.

Zubeldia Taldea

Azaroaren 19an larunbata, bazkaria Aginaga Sagardotegian. Txartelak aurrez salgai Txiriboga tabernan 28 eurotan, azaroaren 17ra arte.

Futbola Haranen

Azaroak 12, larunbata

- 09:15 Benjaminen topaketa: Udarregi Ikastola.
- 11:00 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Urnieta 5A Udarregi 6B-Landaberri A
- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Añorga K.K.E.
- 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Euskalduna S.D.

Azaroak 13, igandea

- 09:30 Futbol Eskola, 2006 Topaketa (60 jokalarik inguru): Usurbil F.T., Martutene, Corass, Kostkas A eta Kostkas B.
- 11:30 Futbol Eskola, 2007 eta 2008koen topaketa (60 jokalarik inguru): Usurbil F.T.-Texas

Eskubaloia partidak

Azaroak 12, larunbata

- 09:30 Alebin neskek, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Udarregi 5A
- 10:30 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Egia 3
- 11:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi D Usurbil-Eibar Eskubaloia C
- 13:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Neumaticos Bayona Pulpo
- 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Indupime Basauri
- 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Indupime Basauri
- 19:30 Senior neskek, Zilarrezko Ohorezko Maila: Ucin Aluminio Usurbil-Ermuko Errotabarri

Azaroak 13, igandea

- 11:30 Alebin neskek, Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa (lagun artekoa): Usurbil K.E.-Hernani E.T.

Agenda azaroa

11 ostirala

- **#Noauak20 Kulturaldia:** 19:00etan Kantu Jira, 21:00etan kantu-bertso-afaria Artzabal. Txartelak 20 eurotan salgai: Artzabal, Bordatxo, Lizardi eta NOAUA!n.
- **#Noauak20 erakusketa** Sutegin. Ordutegia: 18:00-20:00.

12 larunbata

- **#Noauak20 Kulturaldia:** "Non gaude?" antzezlan. Sutegin. 20:00etan. Sarrera: 7 euro.
- **#Noauak20 erakusketa** Sutegin. Ordutegia: 12:00-14:00.

13 igandea

- **#Noauak20 Kulturaldia:** Ruper Ordorikaren kontzertua. 19:00etan Sutegin. Sarrera: 10 euro.
- **#Noauak20 erakusketa** Sutegin. Ordutegia: 12:00-14:00.

Ruper Ordorikak kantu berriak dakartza besapean

Ruper Ordorika diskoa labetik atera berri-berritan helduko da igandean Sutegira. 'Guria Ostatuan' izeneko disko berritik zenbait kantu lehenengoz aurkezteaz gain, bere ibilbide oparoan sortutako beste hainbat kantu eraberrituko ditu.

Ruper Ordorika bere luxuzko "mugalariekin" agertuko da oholta gainean: Arkaitz Miner (gitarra, mandolina eta biolina); Hasier Oleaga (bateria); eta Lutxo Neirarekin (baxua).

Sarrerak: 10 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan). Noaua!ko bazki-



Igande honetan Sutegin arituko da. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da kontzertua.

deek 8 eurotan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

"Non gaude?", larunbat arratsaldea alaitzeko moduko antzezlan umoretsua

"AJE trilogiaren hirugarren zatia duzue honakoa. Aurrekoak, "Grebana gaude" eta "Prest gaude!" izan ziren. Oraingoan non gauden ere ez dakigu!". Lakrikun Antzerki Taldekoak Sutegin izango ditugu larunbat honetan, 20:00etan.

Sarrerak: 7 euro (aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan). Noaua!ko bazkideek 5 eurotan



erosi ahal izango dute NOAUA!ko egoitzan aldez aurretik.

#Noauak20

Xabi Solanoren hitzaldi musikatua

Azaroak 10, osteguna

- 19:30 Sutegiko auditorioan.
- Xabi Solanorekin, "Bere ibilbidea musikan".
- Zehaztasunak: "Azaroaren 10ean, Usurbila etorriko da bere musika ibilbidea azaldu eta zuen galderak erantzutera. Baita berak oso ongi dakiena egitera ere, bere instrumentuekin bere musikaz gozatzeko aukera ere izango dugu Sutegin. 20 urteak zuekin guztioekin ospatu nahi ditugulako, gonbidatuak zaudete denok!"

Ostiral honetan, kantu-bertso-afaria

Azaroak 11, ostirala

- 19:00 Kantu-jira Mikel Laboa plaza-tik.
- 21:00 Kantu-bertso-afaria Artzabal jatetxean.
- Bertsolariak: Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu.
- Txartelak: 20 euro (Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan).
- Menua: Aperitiboa, entsalada epela, bakailuz beteriko piperrak, txerri azpizun brotxeta, brownia, kafea, edaria.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL



606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Noaua!ren

KULTURALDIA 2016

Azaroaren 4tik 13ra

azaroaren 4tik 13ra ERAKUSKETA

Noaua! K.E.-k 20 urte!
Bideo emanaldia, panelak...

Non: Sutegi erakusketa aretoa.



azaroak 10, OSTEGUNA HITZALDI-SOLASALDIA

Xabi Solanorekin

Non: Sutegi Noiz: 19:30

Sarrera: Doan

azaroak 12, LARUNBATA ANTZEZLANA

Non gaude?

Non: Sutegi Noiz: 20:00 Sarrerarekin



azaroak 11, OSTIRALA KANTU-BERTSO-AFARIA

Kantu-jira eta kantu-bertsos-afaria
Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Jexux Mari Irazu

Non: Artzabal jatetxea Noiz: 21:00 Txarterekin



azaroak 13, IGANDEA KONTZERTUA

Ruper Ordorika

Non: Sutegi Noiz: 19:00 Sarrerarekin



noaua



EL GOBIERNO VASCO

ORRIBELI DANTZA TALDEA
Usurbilgo Kantu Taldea

Bizi Kalea

GASTRO-
NOMIA

MOKADUAK



POTEAK



AZOKA

AZAROAK 13
11:30etatik aurrera
Mikel Laboa plaza

Antolatzailea:

hurbilag

Urbilgo Merkatohi eta Ostalaritza Elkarteak

Babesleak:



Ustribilgo Udala



KOHORBAREN GARAIAKIN
ETA LEHENDAKOAN SAKA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Azoka bukaeran opari ederrak
zozkatuko dira, gorde tiketak!